**Osakidetza, Euskal Osasun Zerbitzua, publikoki errekonozitzeko eta babesteko adierazpen instituzionala, Eusko Legebiltzarrak 10/1983 Legea onartu zuela 30 urte bete direnean.**

(Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko akordioa)

---

Eusko Legebiltzarrak Euskal Osasun Zerbitzua-Osakidetza sortzeko legea onartu zuen 1983ko maiatzaren 19an. Testu horretan hitzez hitz adierazi zenez, «euskarazko izenaren jatorri semantikoak ere osasun eta elkartasun ideiak islatzen ditu».

Modu horretan, Euskadik kalitatezko zerbitzu publiko baten lehen harria jarri zuen. Hura gabe ezingo lirateke Euskadiko herritarrek denbora honetan lortutako aurrerabidea eta ongizatea ulertu.

Ordutik, Osakidetza hazi eta heldu egin da. Gaur, hiru hamarkadaren ondoren, 320 osasun-zentro, hamar ospitale, osasun mentaleko zerbitzuak eta 30.000 profesional inguru ditu, eta Euskadiko enpresarik handiena da.

Hala ere, ez ditu sorrerako printzipioak aldatu: unibertsaltasuna, elkartasuna, ekitatea, zerbitzu-kalitatea eta herritarren partaidetza. Ezaugarri horiei esker, Euskadiko gizarteari zerbitzurik onenak eskaini dizkiote une eta egoera bakoitzean. Eredu hori guztion ahaleginekin eraiki da, eta zalantzan jar ezin daitekeen ospea lortu du, bai herritarren bai profesionalen artean. Horregatik, erreferente bihurtu da beste erkidego, administrazio eta herrialde batzuentzat.

Hori guztia, Euskadiko gizarterako lorpen ukaezina ez ezik, gure aurrekoek utzitako herentzia, gaur egungo Euskadiren ondare eta, batez ere, etorkizuneko belaunaldientzako babestu beharreko legatu ere bada zalantzarik gabe.

Horrenbestez, gure etorkizuna bermatzeko, arduraz eta zuhurtziaz jokatu behar dugu.

Lehenik eta behin, botere publikoek sistemaren eta haren ezinbesteko oinarrien jasangarritasuna babesten jarraitu behar dute, agintari demokratikoak diren heinean.

Gainera, kalitatezko osasun zerbitzu publikoa eta unibertsala jasotzeko eskubidea duten banako bezala, baliabide horiek zuzen erabiltzeko eta beren osasuna arduraz zaintzeko betebeharra dute.

Noski, Euskal Osasun Sistemaren profesionalek egunero, bai atzo bai gaur, erakutsi eta erakusten duten esfortzuaren eta konpromisoaren laguntza izan dute horretan guztietan, haiek baitira Osakidetzaren benetako gorputz eta arima. Medikuek, erizainek, zeladoreek, administratzaileek eta gainerako langileek gauzatzen duten lan bikainari esker, Osakidetza gaur egun dena eta etorkizunean izaten jarraitu behar duena da: gure osasun zerbitzua, denona, herrialde honetako herritar guztiona.

Ondorioz, Osasuneko sailburu Jon Darpón Sierraren eskariz, Jaurlaritzaren Kontseiluak honako hau onartu du:

**AKORDIOA**

***Lehena***.- Euskal Osasun Zerbitzuari, Osakidetzari, sortu zenetik hiru hamarkada igaro diren honetan, gauzatu duen lan baliotsua eta bikaina errekonozitzeko eta eskertzeko adierazpen instituzional hau promulgatzea.

***Bigarrena***.- Herritarren esker ona Osakidetzako profesional guztiei helaraztea banan-banan, beren lanari eta esfortzuari esker, zerbitzua eredu eta erreferentzia bihurtu baitute Euskadin eta kanpoan.

***Hirugarrena***.- Euskal Osasun Sistema eta haren izaera publikoa, unibertsala eta kalitatezkoa babesteko ekintza politikoa lehentasun izateko Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako euskal erakundeen konpromiso argia erakustea.

***Laugarrena***.- Aurreko gobernuek Osakidetza sortzeko eta bultzatzeko erakutsitako babesa errekonozitzea, baita Eusko Legebiltzarrak Euskadiko herritar guztiak ordezkatzen eta artatzen dituen zerbitzua zaintzeko egindako lana ere.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 01 91 61 – Fax 945 01 92 10

**Declaración institucional de reconocimiento público y respaldo al Servicio Vasco de Salud, Osakidetza, en el 30 aniversario de la aprobación de la Ley 10/1983 en el Parlamento Vasco**
(Acuerdo de Consejo de Gobierno Vasco de fecha 21-5-2013)

---

El 19 de mayo de 1983, el Parlamento Vasco promulgaba la ley de creación del Servicio Vasco de Salud-Osakidetza que, ya en su comienzo y tal como rezaba literalmente aquel texto, “hasta en el origen semántico de su denominación euskérica refleja las ideas de salud y solidaridad”.

Euskadi ponía así la primera piedra de un servicio público y de calidad sin el que sería imposible entender el progreso y el bienestar logrados por la ciudadanía vasca a lo largo de este tiempo.

Desde entonces, Osakidetza ha crecido y madurado. Hoy, tres décadas más tarde, ofrece a sus pacientes 320 centros de salud, una decena de hospitales, servicios de salud mental y una plantilla estructural de cerca de 30.000 profesionales que la convierten en la mayor empresa vasca.

Sin embargo, mantiene intactos sus principios fundacionales: universalidad, solidaridad, equidad, calidad de los servicios y participación ciudadana. Unas señas de identidad que son las que le han permitido ofrecer a la sociedad vasca el mejor de los servicios posibles en cada momento y coyuntura. Un modelo construido con el esfuerzo de todos y todas, y que ha alcanzado un prestigio incuestionable tanto en el ámbito social como profesional, convirtiéndose en referente de otras comunidades, administraciones y países.

Y eso, además de un logro indiscutible del conjunto de la sociedad vasca, es sin duda una herencia de nuestros antecesores; también un patrimonio de la Euskadi actual; pero, sobre todo, un legado a preservar para las generaciones venideras.

Debemos ser capaces, pues, de actuar con responsabilidad y realismo si queremos garantizar nuestro futuro.

En primer lugar, desde los poderes públicos, que son quienes tienen el mandato democrático de seguir velando por preservar la sostenibilidad del propio sistema y de sus pilares esenciales.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 01 91 61 – Fax 945 01 92 10

Pero también asumiendo un compromiso individual, como ciudadanos y ciudadanas a quienes asiste el derecho a una sanidad pública, universal y de calidad, y también la obligación de hacer un uso racional de esos recursos, además de cuidar responsablemente su propia salud.

Y por supuesto, apoyados fundamentalmente en el esfuerzo y la entrega que, hoy como ayer, demuestran día a día los y las profesionales del Sistema Vasco de Salud, auténtico cuerpo y alma de Osakidetza, Sin la excelente labor que desempeñan médicos, enfermeras, celadores, administrativos y el resto de su personal, Osakidetza nunca habría sido lo que hoy es, y lo que sin duda debe continuar siendo mañana: nuestro servicio de salud, el de todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas de este país.

Así pues, y a petición del Consejero de Salud, Jon Darpón Sierra, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente:

**ACUERDO**

**P*rimero*.-** Promulgar esta declaración institucional para expresar el reconocimiento y la gratitud de la sociedad vasca al Servicio Vasco de Salud-Osakidetza por la valiosa y excelente labor desarrollada desde su nacimiento y a lo largo de sus tres décadas de existencia.

***Segundo***.- Hacer extensivo de forma explícita ese agradecimiento ciudadano a todos y cada uno de los y las profesionales que con su entrega y esfuerzo la han convertido en un servicio ejemplar y de referencia dentro y fuera de Euskadi.

***Tercero***.- Mostrar el compromiso inequívoco del Gobierno Vasco, en particular, y del resto de instituciones vascas en general, a la hora de mantener como prioridad máxima de su acción política la salvaguarda del Sistema Vasco de Salud y la preservación de su naturaleza pública, universal y de calidad.

***Cuarto***- Reconocer el apoyo de los Gobiernos anteriores a la construcción e impulso de Osakidetza y el apoyo del Parlamento Vasco en su labor por salvaguardar un servicio que representa y da servicio al conjunto de la ciudadanía vasca.